

Aurrekontuak

2020

Presupuestos



ADMINISTRACION OROKORRA

4

ADMINISTRACIÓN GENERAL

SEKZIOAK SECCIONES

Hezkuntza 07 Educación
Osasuna 08 Salud

Aurrekontuak

2020

Presupuestos



OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo
de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2020ko urtarrila / 1^a, enero 2020

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa /Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Ekonomia Saila / Departamento de Hacienda y Economía

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzalea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa / Imprime: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografía Zerbitzua / Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

L. G. / D. L.: BI 900-1983

07tik 08ra bitarteko Sekzioak

Secciones 07 a 08

4 Alea
Tomo 4

Aurkibidea / Indice :

-	07 HEZKUNTZA	1
	<i>07 EDUCACIÓN</i>	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak	3
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen Egoera-orria	107
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	4211 Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	109
	<i>Estructura y Apoyo de Educación</i>	
	4221 Haur eta Lehen Hezkuntza	119
	<i>Educación Infantil y Primaria</i>	
	4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	131
	<i>Educación Secundaria y Formación Profesional</i>	
	4223 Unibertsitateko Irakaskuntza	147
	<i>Enseñanza Universitaria</i>	
	4224 Araubide Bereziko Irakaskuntzak	151
	<i>Enseñanzas de Régimen Especial</i>	
	4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prest.....	159
	<i>Innovación Educ. y Form. Perman. del Profesorado</i>	
	4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	167
	<i>Aprendizaje Permanente y Ed. Personas Adultas EPA</i>	
	4231 Hezkuntza Sustapena	173
	<i>Promoción Educativa</i>	
	4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	179
	<i>Euskaldunización del Sistema Educativo</i>	
	5412 Ikerketa	185
	<i>Investigación</i>	
	5414 Berrikuntzarako Funtsa	191
	<i>Fondo de Innovación</i>	
-	Diru-sarreren Egoera-orria	193
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	4211 Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	195
	<i>Estructura y Apoyo de Educación</i>	
	4221 Haur eta Lehen Hezkuntza	197
	<i>Educación Infantil y Primaria</i>	
	4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	199
	<i>Educación Secundaria y Formación Profesional</i>	
	4223 Unibertsitateko Irakaskuntza	201
	<i>Enseñanza Universitaria</i>	
	4224 Araubide Bereziko Irakaskuntzak	203
	<i>Enseñanzas de Régimen Especial</i>	
	4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	205
	<i>Aprendizaje Permanente y Ed. Personas Adultas EPA</i>	
	4231 Hezkuntza Sustapena	207
	<i>Promoción Educativa</i>	
	5412 Ikerketa	209
	<i>Investigación</i>	
-	Gastuen Laburpenak	211
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	

-	Diru-sarreren Laburpenak	215
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	08 OSASUNA	219
08 SALUD		
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	221
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen Egoera-orria.....	283
	<i>El Estado de Gastos</i>	
4111	Osasuna. Egitura eta Laguntza.....	285
	<i>Estructura y Apoyo de Salud</i>	
4112	Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	297
	<i>Financiación y Contratación Sanitaria</i>	
4113	Osasun Publikoa.....	305
	<i>Salud Pública</i>	
4114	Osasun Ikerketa eta Plangintza	311
	<i>Investigación y Planificación Sanitaria</i>	
4115	Farmazia.....	317
	<i>Farmacia</i>	
4116	Adikzioak	321
	<i>Adicciones</i>	
-	Diru-sarreren Egoera-orria	325
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
4111	Osasuna. Egitura eta Laguntza.....	327
	<i>Estructura y Apoyo de Salud</i>	
4112	Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	329
	<i>Financiación y Contratación Sanitaria</i>	
4113	Osasun Publikoa.....	331
	<i>Salud Pública</i>	
4114	Osasun Ikerketa eta Plangintza	333
	<i>Investigación y Planificación Sanitaria</i>	
4115	Farmazia.....	335
	<i>Farmacia</i>	
4116	Adikzioak	337
	<i>Adicciones</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	339
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Diru-sarreren Laburpenak	343
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	



Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

HEZKUNTZA**EDUCACIÓN****HEZKUNTZA**

Pertsonen prestakuntza eta hezkuntza oro har dira edozein herriren etorkizunerako bi zutaberik handienetakoak, eta baita gurea ere; tresna ezinbestekoak dira herritarren garapen pertsonal eta profesionalarentzat, eta euskal hezkuntza sistemaren ekitatean eta kalitatean aurrera egiteko funtsezko gaiak dira bikaintasuneranzko bidean, giza kohesioa, balioetako heziketa eta bizikidetza sustatzu.

Irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuaren paradigma aldatu egin da eta gure zentroetan hezkuntzako esku-hartzea egokitzen ari dira, oinarritzko konpetentziak garatzeko eta ikasleek kasuan kasuko hezkuntza-etapa amaierari dagokion profila erdiesteko. Aldaketa horrek hezkuntza-komunitate osoari eragin dio. Eredu berri horretan aurrera egiteko funtsezko da komunitate osoa inplikatzea: ikasleak, ikastetxeko irakasleak eta irakasle ez direnak, eta familiak. Bestalde, ezinbestekoa da hezkuntza-administrazioarekin eta beste sail eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzea, EAEko gizartearentzat interes handikoak diren esparru komunak lantzeko.

Ekitatea eta bikaintasuna lortzeko konpromisoa dugunez, esparru inklusiboa eraiki dugu elkarbizitza positiboa ardatz hartuta. Horrela, balioetan heztea, aniztasuna sendotasun gisa aitorzea eta bete-betean sinestea ikasle bakoitzak bere beharretatik abiatuta garapen integral optimoa lortzeko aukera duela: horra gure hezkuntza-sistemaren kalitate-erreferenteetatik hiru.

Zehazki, ebaluazio-sistema propio bat izatea ere funtsezko da sistemaren kalitatea bermatzeko. Hezkuntza-politika arloan erabaki estrategikoak hartzeko barne-zein kanto-ebaluazioan lortutako emaitzen analisiak izan behar duela abiapuntu, hobekuntza-esparruak hautemateko eta, hartara, hezkuntzako esku-hartzeen lehentasunak zehazteko.

Hori horrela, hezkuntza-administrazioak modalitate anitzeko prestakuntza-plana diseinatu eta proposatu du, eguneratze didaktikoa edo irakaste-jardunbide berria behar duten alderdietan eragiteko. Zehazki, lehentasun horietako bi dira euskaraz komunikatzeko konpetentziari dagokion prestakuntza eta steam estrategian oinarritutako zientzia-konpetentziak barnebiltzen dituen proposamena.

EDUCACIÓN

La formación de las personas y la educación son dos de los grandes pilares para el futuro y el devenir de cualquier país, y también del nuestro; son instrumentos fundamentales para el desarrollo personal y profesional de la ciudadanía, y se constituyen en elementos clave para avanzar en la equidad y en la calidad del sistema educativo vasco hacia la excelencia, promoviendo la cohesión social, la educación en valores y la convivencia.

El paradigma del proceso enseñanza-aprendizaje ha cambiado, y nuestros centros están adaptando su intervención docente para lograr el desarrollo de las competencias básicas y alcanzar el perfil de salida del alumnado al finalizar cada etapa educativa. Este cambio afecta a toda la comunidad educativa. La implicación del alumnado, el personal docente y no docente y las familias es fundamental para avanzar en este nuevo modelo. Por otro lado, además de la Administración Educativa, la colaboración con otros Departamentos e Instituciones resulta imprescindible para abordar ámbitos comunes y de gran interés para la sociedad vasca.

El compromiso con la equidad y la excelencia nos conduce al desarrollo de un marco inclusivo que tiene como eje la convivencia positiva. En este sentido, la educación en valores, el reconocimiento de la diversidad como una fortaleza y el convencimiento de que cada alumno y alumna tienen la oportunidad de lograr un desarrollo integral óptimo partiendo de sus necesidades, configuran tres referencias para la calidad de nuestro sistema educativo.

En un plano más concreto, un sistema propio de evaluación es otro elemento imprescindible para garantizar la calidad del sistema. El punto de partida para las decisiones estratégicas en la política educativa parte del análisis de los resultados obtenidos tanto en la evaluación interna como en la externa, para detectar las áreas de mejora y por tanto las prioridades para la intervención educativa.

En base a ello, la Administración Educativa diseña y propone su plan de formación con distintas modalidades, para incidir en aquellos aspectos que requieren de una actualización didáctica o innovación en la práctica educativa. En concreto, la formación respecto a la competencia en comunicación lingüística en euskera y la nueva propuesta que conjuga las competencias científicas desde la estrategia steam, se encuentran entre las prioridades.

Bestalde, gogoeta eta analisi prozesuan garatu da, hezkuntza-komunitatearekiko Akordioa bideratu da. Akordio hori etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarria izango da. Legeak, oraingo legealdirako aurrez ikusia, Euskadiko heziketa-sistema etorkizunerako definituko duten edukiak ezarriko ditu, eta bikaintasunerantz aurrera egingo du, egonkortasunean eta Heziketaren kalitatean oinarrituz.

Ildo honetan, hau da, adostasunen bilaketan, gure heziketa-sistemari bereizten duena, jarraituko da gehiengo sindikalarekin negoziazio-mahai desberdinetan izenpetutako akordioen garapenarekin eta implemetazioarekin, hau da, irakasle funtzionarioen sektorea, heziketa bereziko pertsonal laboralaren sektorea, Hezkuntza Saileko garbiketako eta sukaldaritzako pertsonal laboralaren sektorea eta Haurreskolak partzuergokoa. Akordio hauetako bakoitzak garrantzi handiena izan arren bere heziketa-zerbitzuaren kalitatearen eta irakasleen, hezitzaleen eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzen hobekuntzaren gaineko eraginagatik, garrantzi berezia du irakasle funtzionarioen eremuan sinatutako akordioak, bere dimentsioagatik eta aurrekontuetan duen eraginagatik. Akordioak, batez ere, bere gain hartzen ditu kalitatezko enpleguaren sustapena, interinitatearen murriztapena, egonkortasun laborala, behar handienak dituzten zentroetan langile-taldea sendotzea, pertsonalaren ordezpenak eta lan-baldintzak.

Halaber, eta oinarrizko helburuei jarraiki, honako jardueralerroak planteatzen dira:

1. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Etapa honetarako aurreikusten diren oinarrizko helburuak honako hauek dira:

- Ikasleen garapen pertsonal integrala indartzea dimentsio guztietai: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, moral, afektiboa eta emozionala, eta estetikoa eta espirituala, hezkuntza-eredu pedagogikoan eta indarrean dauden curriculum-dekretuetan ezarritako kontuan hartuta.

Horretarako, hau proposatzen da:

- 2 urtetik beherako haurren eskolatze-eskariari erantzuten jarraitza, erakundearteko lankidetzan oinarritura eta kuotaren ordainketan hobari-sistema bat ezarrita, familiaren errenta estandarraren arabera. Era berean 18.000_ baino gutxiagoko diru-sarrera duten familientzat Haurreskolen Partzuergoan doakoa izatea.

- Ikasleei arreta goiztiarra emateko ereduaz ezartzen jarraitza, haurren garapenerako segimendu-protokoloaren bitarte. Horiek guztiak zerbitzu sanitario eta sozialekin elkarlanean egingo dira, familia eta ikaslearen inguruabarrazk kontuan hartuta.

- Berrikuntza sustatzea haur-hezkuntzan, irakasleak prestatuta, materialak sortuta eta esperientzia pilotuak eginda.

En otro orden de cosas, se ha desarrollado un proceso de reflexión y análisis, y se ha alcanzado un Acuerdo con la comunidad educativa que instaura las bases sobre las que se desarrollará la futura Ley de Educación, que prevista para la presente legislatura, instaurará los contenidos que definirán el sistema educativo de Euskadi para el futuro, y avanzará hacia la excelencia, pivotando sobre estabilidad y calidad de la Educación.

En esta misma línea, esto es, la de búsqueda de consensos que caracteriza a nuestro sistema educativo, se continuará con el desarrollo e implementación de los acuerdos suscritos con la mayoría sindical en las diferentes mesas de negociación, léase, sector del funcionariado docente, sector del personal laboral de educación especial, sector del personal laboral de limpieza y cocina del Departamento de Educación, y consorcio Haurreskolak. Si bien todos y cada uno de estos acuerdos son de suma importancia por su incidencia en la mejora de la calidad del servicio educativo y de las condiciones laborales del personal docente, educativo y de servicios, cobra una especial relevancia el acuerdo firmado en el ámbito del funcionariado docente por su dimensión y su incidencia presupuestaria. El acuerdo abarca principalmente aspectos relativos a la promoción de empleo de calidad (OPE), reducción de la interinidad, estabilidad laboral, refuerzo de plantillas en los centros con mayores necesidades, sustituciones del personal y condiciones laborales.

Asimismo, y en línea con los objetivos básicos, se plantean las siguientes líneas de actuación:

1. EDUCACIÓN INFANTIL Y PRIMARIA

Los objetivos básicos planteados en este tramo educativo son los siguientes:

- Potenciar en el alumnado el desarrollo integral de la persona en todas sus dimensiones: desarrollo físico, cognitivo, comunicativo, social, cultural, moral, afectivo y emocional, estético y espiritual, teniendo en cuenta lo establecido en el marco del modelo educativo pedagógico y en los Decretos curriculares vigentes.

Para ello se propone:

- Seguir atendiendo a la demanda de escolarización de niños y niñas menores de 2 años, para ofrecer una mejor respuesta con colaboración interinstitucional y mediante el sistema de bonificación en el pago de la cuota, en función de la renta familiar estandarizada, así como la gratuidad para las familias con ingresos inferiores a los 18.000 euros en el consorcio Haurreskolak.

- Continuar con la implementación del modelo de atención temprana del alumnado mediante el Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil. Todo ello en colaboración con los servicios sanitarios y sociales, teniendo presente a la familia y el entorno del alumnado.

- Impulsar la innovación en la etapa infantil mediante la formación del profesorado, la creación de materiales y el desarrollo de experiencias piloto.

- Hezkuntza-laguntzaren berariazko beharra duten ikasleen inklusiorako beharrezko diren estrategiak garatzea, 2019-2022 aldirako eskola inklusibo garatzeko esparru plana eskola inklusiboa garatzeko II. plana eta eskola inklusibo eta kulturartekoetako ikasle etorkinei arreta emateko II plana garatuta. Era berean, gaitasun handiko ikasleak identifikatzeko eta horietan esku hartzeko plan berri bat jarriko da abian.
- EAEko hezkuntza-sisteman hezkidetza ezartzeko Plan berria, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023), eta soldatua-arrakalari lotutako estrategian aurreikusitako ekintzak garatzea.
- Hezkuntza-gabetasunak eta gabetasun sozioeconómicoak dituzten ikasleei horiek gainditzeko tresnak ematea, gizarteratzearen eta eskola-errendimenduaren mesedetan, programa hauek baliatuta: Hamaika esku eta Bidelaguna.
- Ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-ikastetxeen bidez bultzatzea hezkuntzako esku-hartzea, ikastetxe arruntetan behar duten arreta jaso ezin duten ikasleentzat.
- Elkarbizitza positiboa sustatzea, Bizikasi ekimena garatuta eta Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzak bultzatutako proiektuetan lankidetzen arituta.
- Ikasmaterial eta baliabide digitalak erosi eta erabilizko aukera ematea, Sare Hezkuntza Gelan programa eta ikasmaterialen eta curriculum-garapeneoko baliabideen deialdia baliatuta, eta irakasleen prestakuntza teknologiko eta pedagogikoa sustatuta.
- STEAM Euskadi estrategiaren esparruan, STEAM motako esperientzien garapena sustatzea, zientziari, teknologiari, ingeniaritzari, arteari eta matematikeyi loturiko diziplina anitzeko inguruabarretan ikastea bultzatzeko eta eremu horietan eta bereziki neskei arreta berezia eskainiz bokazio eta gura profesionalak sortzea.
- Hezkuntza eleanitza sustatzea, euskara ardatz dela, ikasleek komunikazio-konpetentzia egoki eta efikaza lortzeko. Halaber, euskararen erabilera sustatzeko programak berrikusi eta bultzatuko dira, baita hizkuntza-proiektuak, hizkuntza-normalizazioko proiektuak eta hizkuntzen tratamendu integratu eta integrala koherenteak izatea bilatuz.
- Hala, arlo horretako esperientziak trukatzeko, lehentasuna da irakurketa-plana osatzea eta Irakurgunea plataformaen erabilera sustatzea, bai eta ekimen berritzaileak proposatzea ere, testuinguruaren araberako estrategiak implementatzeko, idatzizkoaren ulermena hobetzea helburu dutenak.
- Desarrollar las estrategias necesarias para la inclusión del alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo, mediante el desarrollo de la implementación del Plan marco para el desarrollo de una escuela inclusiva 2019-2022 y del II Plan de Atención del alumnado inmigrante, en el marco de una escuela inclusiva e intercultural. En la misma línea se pondrá en marcha el nuevo Plan para la identificación e intervención con el alumnado de altas capacidades.
- Desarrollar el nuevo Plan para la coeducación en el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato 2019-2023 y desarrollar las acciones previstas en la estrategia vinculada a la brecha salarial.
- Proporcionar al alumnado que presente carencias educativas y socioeconómicas los medios para superarlas, favoreciendo su inclusión social y su rendimiento escolar mediante los diferentes programas: Hamaika esku y Bidelaguna.
- Impulsar, a través de los Centros Territoriales, la Educación Hospitalaria, Domiciliaria y Terapéutico-Educativa, la intervención educativa para el alumnado que no puede ser atendido en los centros educativos ordinarios.
- Promover la convivencia positiva mediante el desarrollo de la iniciativa Bizikasi y la colaboración en los proyectos impulsados desde la Secretaría de Paz y Convivencia.
- Facilitar la adquisición y uso de materiales didácticos y recursos digitales mediante el programa Sare Hezkuntza Gelan y la convocatoria de materiales didácticos y recursos de desarrollo curricular, promoviendo la formación tecnológica y pedagógica del profesorado.
- Fomentar el desarrollo de experiencias STEAM, en el marco de la estrategia STEAM Euskadi, para promover aprendizajes en contextos interdisciplinares vinculados a la ciencia, tecnología, ingeniería, arte y matemáticas e inspirar vocaciones y aspiraciones profesionales en estos ámbitos, con especial atención a las alumnas.
- Impulsar una educación plurilingüe, con el euskera como eje central, para que el alumnado adquiera una competencia comunicativa adecuada y eficaz. Asimismo, se revisarán e impulsarán los programas que fomentan el uso del euskera, y la coherencia entre los proyectos lingüísticos, los proyectos de normalización lingüística y el tratamiento integrado e integral de las lenguas.
- En este sentido, la elaboración del plan lector y el fomento del uso de la plataforma Irakurgunea para intercambiar experiencias en este ámbito son prioritarios, así como la propuesta de iniciativas novedosas para implementar estrategias contextualizadas que tengan como objetivo la mejora de la comprensión escrita.

- Euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-konpetentzia hobetzeko, asko dira lagunza-deialdiak. (eleanitzasunerantz, euskarazko eta ingelesezko barnetegiak, mintzalagunak, etab...). Era berean, lehentasuna ematen zaio ikasle hasi berriei arreta emateari, curriculuma eskuratzeko behar den hizkuntzagaítasunaren maila lortzen dela bermatzeko (EUSLE esperientzia).

- Sormena indartzea, hezkuntza-bikaintasuneko proiektuak garatuta, ikasleen garapen akademikoan eta pertsonalean eragina izango duten metodologia- eta antolamendu-aldaketak bultzatzeko. Horrenbestez, curriculuma aberasteko proiektuak eta berrikuntza-proiektuak abian ipintzea eta jardunbide egokiak Partekatuz ikasi proiektuaren bidez trukatzea.

- Hezkuntza-ikuskaritzaren eta lagunza-zerbitzuen esku-hartzeak koordinatzea, barne- nahiz kanpo-ebaluazioetako emaitzak hobetzeari loturiko helburuak betetzeko.

- Bestalde, zuzendaritza-taldeen, praktiketako funtzionarioen eta unibertsitate-ikasleen prestakuntza-ebaluazioko prozesuetan esku hartuko da.

- Berdinen arteko ikaskuntza sustatzea aipatutako Partekatuz Ikasi deialdia eta ikastetxe-sareak baliatuta, arrakasta-esperientziak erreplicatzeko, eta eskolen artean esperientzia-trukea zein elkarlana areagotzea, ikastetxe bikainenak saritzeko ekimenak sortu eta hedatuta.

- Administrazioak dituen prestakuntza eskaintzaren bidez eta lagunza zerbitzuen bidez ikastetxe publikoetako Zuzendaritza taldeak indartu.

- Zentro publikoen autonomia indartzea zuzendaritza-proiektuen eta zentroetako urteko planen bitartez, eta zentroaren kudeaketa hobetzea Kalitatea Hezkuntzan sareko Aurreraka esperientziaren bitartez.

- Ordezkaritza organoak eta aukeran dauden komunikazio eta parte-hartzeko bitarteko guztiak erabiliz, hezkuntza-erkidegoaren atxikimendua bultzatu.

2. BIGARREN HEZKUNTZA

Etapa honetarako aurreikusten diren helburuak honako hauek dira:

- Ikasleen garapen pertsonal integrala indartzea dimentsio guztiengan: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, moral, afektiboa eta emozionala, eta estetikoa eta espirituala, Hezkuntza-eredu pedagogikoan eta indarrean dauden curriculum-dekretuetan ezarritako kontuan hartuta.

- Para la mejora de la competencia lingüística en euskera e inglés, se ofrecen ayudas mediante diversas convocatorias. (eleanitzasunerantz, estancias de inmersión lingüística en euskera e inglés, auxiliares de conversación...). Asimismo, resulta prioritaria la atención al alumnado de reciente incorporación para garantizar el logro del nivel de competencia lingüística necesario para posibilitar el acceso al currículo (Experiencia EUSLE).

- Potenciar la creatividad mediante el desarrollo de proyectos hacia la excelencia educativa, para fomentar cambios metodológicos y organizativos que tengan repercusión en el desarrollo académico y personal del alumnado. En ese sentido, se impulsa la puesta en marcha de proyectos de enriquecimiento curricular, proyectos de innovación, así como intercambio de buenas prácticas mediante el proyecto Partekatuz ikasi.

- Coordinar la intervención entre la Inspección educativa y los servicios de apoyo para desarrollar los objetivos de mejora vinculados a los resultados de las evaluaciones internas y externas.

- Por otro lado, se actuará en los procesos de evaluación formativa de los equipos directivos, del profesorado funcionario en prácticas y del alumnado universitario en prácticas.

- Fomentar el aprendizaje entre iguales, mediante la citada convocatoria Partekatuz Ikasi, y las redes de centros con el fin de replicar experiencias de éxito, e intensificar la colaboración e intercambio de experiencias entre escuelas, impulsando y difundiendo iniciativas que faciliten el reconocimiento a los centros de enseñanza que demuestren su excelencia.

- Fortalecer los Equipos Directivos de los centros públicos mediante la formación y el apoyo de los distintos servicios de la Administración.

- Potenciar la autonomía de los centros públicos, a través de Proyectos de Dirección y de los Planes anuales de los centros, así como la mejora de la gestión del centro a través de la experiencia Aurreraka de la red Kaliatea Hezkuntzan.

- Promover la implicación de la comunidad educativa a través de los distintos órganos de representación y canales de comunicación y participación.

2. EDUCACIÓN SECUNDARIA

Los objetivos básicos planteados en este tramo educativo son los siguientes:

- Potenciar en el alumnado el desarrollo integral de la persona en todas sus dimensiones: desarrollo físico, cognitivo, comunicativo, social, cultural, moral, afectivo y emocional, estético y espiritual, teniendo en cuenta lo establecido en el marco del modelo educativo pedagógico y en los Decretos curriculares vigentes.

- Anitzasunaren arreta bermatzeko giza baliabideak bideratzen jarraitzea, arreta arrunteko eta espezifikoko neurriak ezarrita, betiere gizarteratzea eta eskola-errendimendua hobetzea xede dela. Horretarako, programa hauek baliatuko dira: Hamaika esku, Bidelaguna, eskolatze-programa osagarriak, hezkuntza berariaz sendotzeko programak, etab...
- Hezkuntza-laguntzaren berariazko beharra duten ikasleen inklusiorako beharrezko diren estrategiak garatzea, 2019-2022 aldirako eskola inklusiboa garatzeko esparru plana eta eskola inklusibo eta kulturarteko ikasle etorkinei arreta emateko II plana garatuta. Era berean, gaitasun handiko ikasleak identifikatzeko eta horietan esku hartzeko plan berri bat jarriko da abian.
- Ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arreta eta arreta terapeutiko-hezigarria lurralte-zentroen bidez sustatu, hain zuzen ere, arreta klinikoa behar dutelako eta eurei dagokien hezkuntza-komunitatean edo ohiko ikastetxeen zerbitzua ezin jaso duten ikasleentzat.
- Elkarbizitza positiboa sustatzea, Bizikasi ekimena garatuta eta Bake Bizikidetzarako Idazkaritzak bultzatutako proiektuetan lankidetzan arituta. Horrela, Herenegun unitate didaktikoarekin pilotu bat egingo da zentro-lagin batean.
- EAEko hezkuntza-sisteman hezkidetza ezartzeko Plan berria, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023), eta soldata-arrakalari lotutako estrategian aurreikusitako ekintzak garatzea.
- Gazteen artean kontsumo arriskutsuen prebentziorako eta teknologia berrien erabilera arduratsua eta zentzukoa sustatuko dituzten programak bultzatu, Osasun Sailarekin eta Segurtasun Sailarekin elkarlanean.
- Ikasmaterial eta baliabide digitalak erosi eta erabiltzeko aukera ematea, Sare Hezkuntza Gelan programa eta ikasmaterialen eta curriculum-garapeneoko baliabideen deialdia baliatuta, eta irakasleen prestakuntza teknologiko eta pedagogikoa sustatuta.
- STEAM motako esperientzien garapena sustatzea, zientziari, teknologiari, ingeniaritzari, arteari eta matematikei loturiko diziplina anitzeko inguruabarretan ikastea bultzatzeko eta eremu horietan eta bereziki neskei arreta berezia eskainiz bokazio eta gura profesionalak sortzea.
- Hezkuntza eleanitza sustatzea, euskara ardatz dela, ikasleek komunikazio-konpetentzia egoki eta efikaza lortzeko. Halaber, euskararen erabilera sustatzeko programak berrikusi eta bultzatuko dira, hizkuntza-proiektuak, hizkuntza-normalizazioko proiektuak eta hizkuntzen tratamendu integratu eta integrala koherenteak izatea bilatuz.
- Continuar facilitando los recursos humanos que aseguren la atención a la diversidad, desarrollando diferentes medidas tanto de atención ordinaria como específicas, favoreciendo su inclusión social y su rendimiento escolar mediante los diferentes programas: Hamaika esku, Bidelaguna, Programas complementarios de escolarización, Programas de refuerzo Educativo Específico, etc...
- Desarrollar las estrategias necesarias para la inclusión del alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo, mediante la implementación del Plan marco para el desarrollo de una escuela inclusiva 2019-2022 y del II Plan de Atención del alumnado inmigrante, en el marco de una escuela inclusiva e intercultural. En la misma línea se pondrá en marcha el nuevo Plan para la identificación e intervención con el alumnado de altas capacidades.
- Impulsar, a través de los Centros Territoriales, la Educación Hospitalaria, Domiciliaria y Terapéutico-Educativa para el alumnado que, por precisar de atención clínica, no puede ser atendido en el entorno escolar correspondiente, ni en los centros educativos ordinarios.
- Promover la convivencia positiva mediante el desarrollo de la iniciativa Bizikasi y la colaboración en los proyectos impulsados desde la Secretaría de Paz y Convivencia. En este sentido se pilotará en una muestra de centros la unidad didáctica Herenegun.
- Desarrollar el nuevo Plan para la coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato 2019-2023 y desarrollar las acciones previstas en la estrategia vinculada a la brecha salarial.
- Impulsar programas de prevención de consumos perjudiciales entre la juventud y programas que fomenten el uso responsable y razonable de las nuevas tecnologías, en colaboración con los Departamentos de Salud y de Seguridad.
- Facilitar la adquisición y uso de materiales didácticos y recursos digitales mediante el programa Sare Hezkuntza Gelan y la convocatoria de materiales didácticos y recursos de desarrollo curricular, promoviendo la formación tecnológica y pedagógica del profesorado.
- Fomentar el desarrollo de experiencias STEAM para promover aprendizajes en contextos interdisciplinares vinculados a la ciencia, tecnología, ingeniería, arte y matemáticas e inspirar vocaciones y aspiraciones profesionales en estos ámbitos, con especial atención a las alumnas.
- Impulsar una educación plurilingüe, con el euskera como eje central, para que el alumnado adquiera una competencia comunicativa adecuada y eficaz. Asimismo, se revisarán e impulsarán los programas que fomentan el uso del euskera y la coherencia entre los proyectos lingüísticos, los proyectos de normalización lingüística y el tratamiento integrado e integral de las lenguas.

Hala, arlo horretako esperientziak trukatzeko, lehentasuna da irakurketa-plana osatzea eta Irakurgunea plataformaren erabilera sustatzea, bai eta ekimen berritzaleak proposatzea ere, testuinguruaren araberako estrategiak implementatzeko, idatzizkoaren ulermen hobetzea helburu dutenak.

Euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-konpetenzia hobetzeko, asko dira lagunza-deialdiak. (eleanitzasunerantz, hizkuntzak ikasteko egonaldian atzerrian, mintzalagunak, etab.). Era berean, lehentasuna ematen zaio ikasle hasi berriei arreta emateari, curriculuma eskuratzeko behar den hizkuntzagaitasunaren maila lortzen dela bermatzeko (EUSLE esperientzia).

- Sormena indartzea, hezkuntza-bikaintasuneko proiektuak garatuta, ikasleen garapen akademikoan eta pertsonalean eragina izango duten metodologia- eta antolamendu-aldaketak bultzatzeko. Horrenbestez, curriculuma aberasteko eta berrikuntza-proiektuak abian ipintzea eta jardunbide egokiak Partekatuz ikasi proiektuaren bidez trukatzea.

- Hezkuntza-ikuskaritzaren eta lagunza-zerbitzuen esku-hartzeak koordinatza, barne- nahiz kanpo-ebaluazioetako emaitzak hobetzeari loturiko helburuak betetzeko.

Bestalde, zuzendaritza-taldeen, praktiketako funtzionarioen eta unibertsitate-ikasleen prestakuntza-ebaluazioko prozesuetan esku hartuko da.

- Berdinen arteko ikaskuntza sustatzea aipatutako Partekatuz Ikasi deialdia eta ikastetxe-sareak baliatuta, arrakasta-esperientziak erreplicatzeko, eta eskolen arteen esperientzia-trukea zein elkarlana areagotzea, ikastetxe bikainenak saritzeko ekimenak sortu eta hedatuta.

- Administrazioak dituen prestakuntza eskaintzen bidez eta lagunza zerbitzuen bidez ikastetxeetako Zuzendaritza Taldeak indartu.

- Zentro publikoen autonomia indartzea zuzendaritzaproietuen eta zentroetako urteko planen bitartez, HAUSPOA proiektuak eta zentroaren kudeaketa hobetza Kalitatea Hezkuntzan sareko Aurreraka esperientziaren bitartez.

- Ordezkaritza organoak eta aukeran dauden komunikazio eta parte-hartzeko bitarteko guztiak erabiliz, hezkuntza-erkidegoaren atxikimendua bultzatu.

- Helduen hezkuntzan, ikasle guztiei ematen zaien eskaintza eta arreta egokitzea eta etorri berria diren ikasleei edota beren familiei ekimen berriak bultzatzea.

En este sentido, la elaboración del plan lector y el fomento del uso de la plataforma Irakurgunea para intercambiar experiencias en este ámbito son prioritarios, así como la propuesta de iniciativas novedosas para implementar estrategias contextualizadas que tengan como objetivo la mejora de la comprensión escrita.

Para la mejora de la competencia lingüística en euskera, e inglés se ofrecen ayudas mediante diversas convocatorias. (eleanitzasunerantz, estancias en el extranjero para el aprendizaje de idiomas, auxiliares de conversación, etc. Asimismo, resulta prioritaria la atención al alumnado de reciente incorporación para garantizar el logro del nivel de competencia lingüística necesario para posibilitar el acceso al currículo (Experiencia EUSLE).

- Potenciar la creatividad mediante el desarrollo de proyectos hacia la excelencia educativa para fomentar cambios metodológicos y organizativos que tengan repercusión en el desarrollo académico y personal del alumnado. En ese sentido, se impulsa la puesta en marcha de proyectos de enriquecimiento curricular, proyectos de innovación, así como intercambio de buenas prácticas mediante el proyecto Partekatuz ikasi.

- Coordinar la intervención entre la Inspección educativa y los servicios de apoyo para desarrollar los objetivos de mejora vinculados a los resultados de las evaluaciones internas y externas.

Por otro lado, se actuará en los procesos de evaluación formativa de los equipos directivos, del profesorado funcionario en prácticas y del alumnado universitario en prácticas.

- Fomentar el aprendizaje entre iguales, mediante la citada convocatoria Partekatuz Ikasi, y las redes de centros con el fin de replicar experiencias de éxito, e intensificar la colaboración e intercambio de experiencias entre escuelas, impulsando y difundiendo iniciativas que faciliten el reconocimiento a los centros de enseñanza que demuestren su excelencia.

- Fortalecer los Equipos Directivos de los centros mediante la formación y el apoyo de los distintos servicios de la Administración.

- Potenciar la autonomía de los centros públicos, a través de Proyectos de Dirección y de los Planes anuales de los centros, los proyectos HAUSPOA, así como de la mejora de la gestión del centro a través de la experiencia Aurreraka de la red Kalitatea Hezkuntzan.

- Promover la implicación de la comunidad educativa a través de los distintos órganos de representación y canales de comunicación y participación.

- En la educación de Personas Adultas, adecuar la oferta y la atención a todo el alumnado, así como posibilitar nuevas iniciativas para la atención al alumnado de reciente incorporación y/o a sus familias.

- Helduen hezkuntza egokitzea hezkuntza ez presentzialari edo urrutikoari (UHEI) loturiko eskaera berrietara, eta geroko ikasketetarako edo lanerako sarbidea errazten duten irakaskuntza arautuko esparru lehenetsietara.

3. LANBIDE HEZIKETA

- Lanbide-heziketa egiten duten pertsonei kualifikazio-maila handia eta espezializazioa emateko aukera ematen dien prestakuntza aurreratua ezarri ekoizpen-sarean planteatzen diren erronkei erantzuteko.

- 2019-2021 Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren garatzea.

- Laugarren industria-iraultzak planteatzen dituen erronkei erantzuteko Eedu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarea sortu eta arautu.

- Beste sail eta erakunde batzuekin elkarlanean aritu 4.0. industria eta Sistema Adimendua garatzeko aplikatutako berrikuntza sustatz; hala eremu teknologikoan, ETEei produktua, ekoizpen, prozesua eta zerbitzua hobetzen laguntza lehenetsiz, nola eremu metodologikoan, ikasteko modua aldatzeko eta zeharkako trebetasunak eskuratzea hobetzeko.

- EAEko Lanbide-kualifikazio eta espezializazioen Euskal esparruaren diseinu eta ezartzearekin jarraitu eta tituluen errebisioarekin jarraitu, xede horrekin, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak biltzen dituen instituzio eta erakundeen arteko elkarlana bultzatu.

- Lanbide-heziketako ikastetxe bateratuen egitura eta antolamendu berria sustatu kudeaketa aurreratuari eta prestakuntza- eta ikaskuntza-gaitasunari dagozkion irizpide batzuk garatuz Lanbide Heziketako Eedu Konbinatuko hiru eremuetan: lanbide heziketa integratuan, berrikuntza aplikatuan eta ekintzailetzat aktiboan.

- Lanbide-heziketaren etengabeko hobekuntza bultzatu eta garatu.

- Eedu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarean dauden Lanbide Heziketako zentroen, gainerako zentroen eta enpresen (EIEn bereziki) arteko lankidetza sustatu.

- Adecuación de la enseñanza de adultos a las nuevas demandas relacionadas con la educación no presencial o a distancia (IVED), así como a priorizar los ámbitos de la enseñanza reglada que facilitan el acceso a las titulaciones necesarias para estudios posteriores o la inserción en el mundo laboral.

3. FORMACIÓN PROFESIONAL

- Implantar una formación avanzada que permita a las personas que cursen formación profesional adquirir una alta cualificación y especialización para que puedan dar respuesta a los retos planteados en el tejido productivo.

- Desarrollar el V Plan Vasco de Formación Profesional 2019-2021.

- Crear y regular una Red Vasca de Centros especializados en el modelo combinado de Formación Profesional que permita dar respuesta a los retos que plantea la 4^a revolución industrial.

- Trabajar en colaboración con otros Departamentos e Instituciones el desarrollo de la Industria 4.0 y los Sistemas Inteligentes, fomentando la innovación aplicada, tanto en el ámbito tecnológico, priorizando el apoyo a las pymes en mejora de producto, proceso productivo y servicio, como en el ámbito metodológico, que transforme la manera de aprender y mejore la adquisición de competencias transversales.

- Continuar con el proceso de diseño e implantación del Marco Vasco de Cualificaciones y Especializaciones profesionales del País Vasco y continuar la revisión de los títulos impulsando la colaboración de las distintas instituciones y entidades integrantes del Consejo Vasco de Formación Profesional.

- Promover una nueva organización y estructura de los centros integrados de formación profesional con criterios de gestión avanzada y de capacidad para la formación y aprendizaje en los tres ámbitos del modelo combinado de formación profesional: formación profesional integrada, la innovación aplicada y el emprendimiento activo.

- Seguir con el impulso y el desarrollo de la mejora continua en la formación profesional.

- Fomentar el trabajo colaborativo de los centros de la Red Vasca de Centros Especializados en el Modelo Combinado de Formación Profesional, con el resto de los centros de la red y con las empresas, en especial Pymes.

- EAEko Lanbide Heziketaren nazioarteko dimentsioa bultzatu, irakasleak eta ikasleak trukatzeko nazioarteko programak sustatuta bi norabideetan Lanbide Heziketako Euskal Sistemak beste herrialde batzuetan egingo duen prestakuntza-jardueren eskaintzaren bitarbez, -bereziki garrantzitsua EAETik kampora lantokiak dituzten euskal enpresentzat-, eta, azkenik, EAEko Lanbide Heziketak dituen esperientziak beste herrialde batzueta esportatuz, hauek bertan diseinatuta eta ezarrita.

- Irakasleen prestakuntza indartu honako hauek lortzeko: irakasleen eguneratzeko zientifikoa eta teknologikoa, eta prestakuntza hori benetakoak diren eta teknologikoki oso aurreratuak dauden lankidetza-erraztu behar da; irakaskuntzaren jarduera eta kudeaketa hobetza lankidetza bidezko erronketan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza metodologia berrien arloan, eta, azkenik, irakasleei ikasgeletan STEAM kultura ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea.

- Aktibo eta baliabide zenbaitetan (gune, instalazio eta ekipamenduak) oinarritutako inbertsio-plana indartu, ikastetxeek dituzten premiak kontuan hartuta, 4. Iraulitzak industrialak ezartzen dituen erronkei erantzuna eraginkor bat emateko.

- HERRITAREN KONPETENTZIA-MAILA Handitzea - konpetentziak giltzarriak zein berariazkoak izan-garapen profesionalean eta personalean laguntzeko eta ezagutzaren gizartearen aktiboki parte hartzeo.

- Lan-esperientziaren bidez edo beste bide ez formaletatik lortutako ikasketak balioesteko aukera ematea eta lanbide-heziketako titulua edo lanbide-zuirtagiria lortzeko prestakuntza osatzeko eman beharreko orientabideak eskaintzea.

- Ikaskuntzaren ibilbide berriak integratuak ezartzea Euskal Herriko Oinarrizko Lanbide Heziketan.

4. ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK

- Sustatu Arte Dramatiko eta Dantzako arte eszenikoak Dantzertin, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola, eta irakaskuntza artistikoak ID Arten, Goi Mailako Arte eta Diseinu Eskola bere egoitza berrian, Betoñoko komentuan Gasteizen.

- Musikene, Dantzerti eta IDArte eta besteelako entitateen arteko elkarlana bultzatzea arte eszenikoa, arte eta musika irakaskuntzak indartzeko.

- Kirol-irakaskuntzen eskaintza publikoa finkatu eta zabaltzea, espezialitate berriak sartuta.

- Irakaskuntza eleanitzean diharduten irakasle-talde jakin batzuei egokitutako eskaintza erraztea.

- Promover la dimensión internacional de la formación profesional del País Vasco fomentando los programas de intercambio de profesorado y alumnado en las dos direcciones, a través de una oferta de actividades formativas del sistema vasco de FP en otros países, de especial importancia en el caso de empresas vascas con centros de trabajo en el exterior y, por último, exportando las experiencias del sistema vasco de FP a otros países a través de su diseño e implantación en los mismos.

- Reforzar la formación del profesorado con los objetivos de: actualizar su ámbito científico-tecnológico, facilitando el que dicha formación pueda realizarse en entornos profesionales reales y muy avanzados tecnológicamente, mejorar la práctica docente y de gestión en aspectos relacionados con las nuevas metodologías de aprendizaje colaborativo basado en retos y por último aportar al profesorado las herramientas necesarias para abordar la aplicación de la cultura STEAM en el aula.

- Reforzar las inversiones en activos y recursos (espacios, instalaciones y equipamientos), tomando como referencia las nuevas necesidades de los centros para dar respuestas efectivas a los retos que plantea la 4^a revolución industrial.

- Avanzar en los niveles de competencias de la ciudadanía, tanto claves como específicas, que contribuya al desarrollo profesional y personal de las personas y les permita participar activamente en la sociedad del conocimiento.

- Posibilitar el reconocimiento de los aprendizajes obtenidos a través de la experiencia laboral o de vías no formales y facilitar las orientaciones pertinentes para completar la formación conducente a un título de formación profesional o certificado de profesionalidad.

- Implementar nuevos itinerarios integrados de aprendizaje de la Formación Profesional Básica del País Vasco.

4. ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN ESPECIAL

- Impulsar las enseñanzas de artes escénicas de Arte Dramático y Danza en la Escuela Superior de Arte Dramático y Danza de Euskadi, "Dantzerti" y las enseñanzas artísticas de la Escuela Superior de Arte y Diseño "ID Arte" en su nuevo emplazamiento del Convento de Betoño en Gasteiz.

- Promover la colaboración de Musikene, Dantzerti e IDArte con otras entidades para el impulso de las enseñanzas escénicas, artísticas y musicales.

- Consolidar y ampliar la oferta pública de las Enseñanzas Deportivas, incorporando nuevas especialidades.

- Facilitar una oferta adaptada a determinados colectivos del profesorado orientado al desarrollo de la enseñanza plurilingüe.

- Hezkuntzan zein kudeaketaren esparruan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak bultzatzea eta hobetzea.

5. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA, EUSKALDUNTZEA ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

- ISEIk egiten dituen Ebaluazio Diagnostikoetan orain arte aztertu ez diren konpetentziak gehitu eta Estatuko zein nazioarteko ebaluazioetan parte hartu.
- Euskadiko adierazleen sistema eguneratu eta Europa 2020 adierazleen sistemara egokitu.
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren nazioarteko proiekzioa, europar proiektuekin lotura duten produktuen ustiapena eta Europako instituzio eta erakundeekin harremanak nazioarteratzea indartzeko ekintzak bultzatzea.
- Oinarrizko konpetentziengarapenean murgilduta dabiltsan sare eta etapa guztietako irakasleen etengabeko prestakuntzan aurrera egin, Heziberri 2020 Planeko hezkuntza eredu pedagogikoa gelara eramanez.
- Sustatu irakaskuntza- eta zuzendaritza-funtzioen ebaluazio-praktikak, ERASMUS+ Proiektuaren ondorioen arabera, irakasleen etengabeko prestakuntza hobetu nahian.
- Ebaluazio-prozesuak eta eta Hobekuntza-helburuak sustatzea ikastetxeen urteko planetan.
- Irakaskuntzan, IKATen erabilera sustatzea, ikaskuntza garatzeko eta aniztasunari erantzuteko.
- Ikastetxeetako hizkuntza normalkuntza proiektuekin aurrera egin, hizkuntza proiektuekin bat eginez, ikasgelan eta ikastetxeen euskararen erabilera eragin handiagoa lortzeko.
- Sustatu hizkuntzen ezagutza eguneratzea, batez ere hizkuntzen trataera integratu eta integralari dagokionez.
- Giza baloreen eta euskal hizkuntzaren babes eta zabalkunderako, gizarteko erakunde eta eragileekin, batez ere kultura eta hezkuntza eremuetan, lankidetzan aritu.

6. UNIBERTSITATE PRESTAKUNTZA GARATZEA

Hona aurrekontuen bidez bete nahi ditugun helburuak:

- Impulsar y mejorar la utilización de las tecnologías de la información y de la comunicación tanto en el área educativa como en el de la gestión.

5. FORMACIÓN CONTINUA, EUSKALDUNIZACIÓN Y SERVICIOS DE APOYO

- Incorporar nuevas competencias a las Evaluaciones de Diagnóstico realizadas por el Instituto de Evaluación e Investigación e impulsar la participación en evaluaciones nacionales e internacionales.
- Actualizar el sistema de indicadores de Euskadi y adaptarlo al sistema de indicadores 2020 europeo.
- Impulsar acciones conducentes a la internacionalización ligada a la proyección internacional de la educación no universitaria, el aprovechamiento de los productos ligados a proyectos europeos y la relación con instituciones y organizaciones europeas.
- Avanzar en la formación continua del profesorado de todas las redes y etapas educativas vinculadas al desarrollo de las competencias básicas, mediante la implementación del modelo educativo pedagógico del Plan Heziberri 2020 en las aulas.
- Impulsar prácticas de evaluación de la función docente y de la función directiva, en base a las conclusiones del Proyecto ERASMUS+, con el objeto de mejorar la formación continua del profesorado.
- Impulsar los procesos de evaluación y objetivos de mejora en los planes anuales de los centros.
- Fomentar la utilización de las TIC en la práctica docente para el desarrollo del aprendizaje y la respuesta a la diversidad.
- Proseguir con los planes de normalización lingüística de los centros, en coherencia con los proyectos lingüísticos para lograr una mayor incidencia en el uso del euskera en el aula y en el centro escolar.
- Impulsar la actualización idiomática y la formación en didáctica de las lenguas del profesorado, fundamentalmente en relación con el tratamiento integrado e integral de las lenguas.
- Colaborar con instituciones y entidades en la defensa y difusión de los valores humanos y de la lengua vasca, especialmente en ámbitos culturales y educativos.

6. DESARROLLO DE LA FORMACIÓN UNIVERSITARIA

Los objetivos que deseamos cumplir con los presupuestos son los siguientes:

- Ekitatea sustatzea unibertsitate-ikasketara sartzeko orduan; eta ikasketa horiek egitea sustatzea. Horretarako, ikasteko beka eta lakuntza politika bideratuko da, familia-errentaren mugak modu egokian orekutu eta hainbat lagunzia jaso ahal izateko eta ikasketetan eskatu ahal diren emaitzak eskatzen.

- 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana Unibertsitatea+Empresa, Bikaintasunezko Ikerkuntza, Nazioartekotzea, Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaleak eta Zuzentasuna, euskara, genero-berdintasuna eta emplegarritasuna ardatzetan garatzea. Plan horrek finantzaketa-eredu bat zehazten du Euskal Herriko Unibertsitatearentzat; eredu horrek, berriz, ekarpen arrunta du honetarako: nahikotasun-printzipioaren arabera unibertsitateko eragiketa arruntak estali eta finantzatzeko; ibertsio eta azpiegiturak finantzatzeko, eta programa-kontratuak bitartez finantzaketa osagarria jartzeko prestakuntza arautuko eta ez arautuko jardueretarako, ikerketa-jardueretarako eta gardentasun, berdintasun eta gizarte proiekziorako. Gainera, plan horrek unibertsitate pribatuentzako programa-kontratu bidezko finantzaketa-eredu bat jasotzen du, Euskal Herriko Unibertsitaterako jasotako arlo berak bultzatzeko.

- Ikerketara zuzendutako unibertsitate-baliabideak areagotzen dituzten programa eta ekintzak sustatzea: langileak (ikertzaile berriak edo ikerketeta-laguntzaileak) kontrataztea, belaunaldi-erreleboa eta emakume-ikertzaileak modu berean parte hartea kontuan hartuta) eta antolakuntza-baliabideak (erakunde-sarea indartzea eta kudeaketa-tresna berriak) eta baliabide materialak (zientzia-talde eta -azpiegitura berriak jartzea).

- 2022rako unibertsitate eta empresaren arteko estrategiaren ildotik, empresa eta unibertsitatearen eta unibertsitate eta empresaren arteko harremanak Cluster 4Gunearen bidez sustatzen, empresa eta unibertsitatearen arteko gelak bultzatzera, programa dualak sustatzen eta unibertsitate-egresatuen emplegarritasuna sustatzen helburu duten jarduera bultzatzera bideratutako jarduerak sustatzea.

- Euskal Unibertsitate Sistemak eskainitako titulazioetan, metodología eraginkorak erabiltzea, alternantziengarriak bultzatzera eta nazioarteratzea indartzeko ekintzak sustatzea.

- Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzeko eta modernizatzeko ekintzak bultzatzearia.

- Unibertsitatean euskara sustatzea.

- Nazioartean parte hartzeko, elkartrukeak egiteko eta lankidetzen jarduteko bideak sustatzen Euskal Unibertsitate Sisteman.

- Unibertsitate, empresa eta gizartearen arteko harremanak hobetzea sustatzea.

- Fomentar la equidad en el acceso a los estudios universitarios, así como a la realización de los mismos, mediante una política de becas y ayudas al estudio en las que se equilibren adecuadamente los umbrales de renta familiar que permiten el acceso a las diversas ayudas y el rendimiento académico exigible.

